



Euskadiko nekazaritza elikagaien
katearen kontrol ofizialerako Plana
2016-2020



NEKAZARITZA-USTIATEGIETAKO HIGIENEARI ETA FITOSANITARIOEN ERABILERARI BURUZKO JARDUNBIDE EGOKIEN ESKULIBURUA



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA AZPIEGITURA SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO E INFRAESTRUCTURAS



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

Bizkaia
Foru Aldundia
diputación foral



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

elika
Fundación vasca para la
Seguridad Alimentaria
Nekazaritza Elikagaien
Seguratasuna
Eusko Foruak

NEKAZARITZA-USTIATEGIETAKO
HIGIENEARI ETA
FITOSANITARIOEN
ERABILERARI BURUZKO
JARDUNBIDE EGOKIEN
ESKULIBURUA

Argitaratzailea: ELIKA (Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa)
D.L. VI-199/17
2017ko apirila

AURKIBIDEA

ESKULIBURUAREN HELBURUA	2
NEKAZARITZA-EKOIZPEN PRIMARIOAREKIN LOTUTAKO ARRISKUAK	3
ELIKAGAIEN SEGURTASUNERAKO BALDINTZAK:	
■ URA	4
■ FITOSANITARIOAK:	6
Produktu fitosanitarioak erabiltzean	
Produktu fitosanitarioen biltegian	
Produktu fitosanitarioak manipulatzeko	
Fitosanitarioak aplikatzeko ekipoak	
Fitosanitarioak aplikatzean sortutako hondakinak	
■ LANGILEAK.....	11
■ LOTURA DUTEN ZEREGINETAKO HIGIENEA ETA MANIPULAZIOA.....	12
Laborantza	
Bilketa	
Ekipoak eta garraioa	
Biltegiatzea	
Ustiatzeko ontziratzea	
■ TRAZABILITATEA	15
■ ONGARRIAK ETA MEDEAGARRIAK	16
■ DOKUMENTAZIOA ETA ERREGISTROAK	18
I. ERANSKINA. OINARRIZKO ARAU-ESPARRUA	19
INFORMAZIO GEHIAGO LORTZEKO EDO KONTSULTAK EGITEKO	20



ESKULIBURUAREN HELBURUA

Eskuliburu honek bi helburu hauek ditu:

1. Laboreei loturiko arriskuak murrizteko jardunbide egokiak azaltzea.
2. Ekoizle guztiek arauen eskakizunak ulertzea eta lan egiteko beharrezko gaitasunak eskuratzea.

NEKAZARITZA-EKOIZPEN PRIMARIOAREKIN LOTUTAKO ARRISKUAK

ZER DA ARRISKUA?

Elikagaien dagoen agente biologiko, kimiko edo fisiko bat da, edo elikagaiaren egoera jakin bat, osasunerako ondorio kaltegarria sor dezakeena.

ARRISKU MOTAK

BIOLOGIKOAK



Bakterioak (*Salmonella* spp., *Escherichia coli*, *Shigella* spp., *Listeria monocytogenes*, etab.),

Birusak (A eta B hepatitis, etab.), eta

Parasitoak (*Giardia* spp., etab.).

Arrisku biologikoen eragin diezaiekete kalterik handiena kontsumitzaileari, elikagai bidezko toxiinfekzioak sor ditzaketelako.

KIMIKOAK



Fitosanitarioen hondakinak, garbitzeko eta desinfektatzeko produktuen arrastoak, metal astunak, nitratoak, aflatoxinak, etab.

Kutsatzaile kimikoen ondorioak epe luzerakoak (metagarriak) eta epe laburrekoak (akutuak) izan daitezke.

FISIKOAK



objektu arrotzen presentzia (harriak, plastikoak, ezpalak, etab.).

Arrisku fisikoak, oro har, laboreak manipulatzeko sortzen den ustekabeko kutsadurak edo kanpoko kutsadurak eragiten ditu.

ARRISKUAK SORTZEN DITUZTEN FAKTOREAK

Kutsadura mikrobiologikoa:

hainbat faktoreren eraginez sortzen da: bilketan, produktua garbitzeko edatekoa ez den ura erabiltzeagatik; langileek laborantzan, bilketan edo garraioan higie-ne-praktika desegokiak erabiltzeagatik; ondo tratatu gabeko materia organikoa erabiltzeagatik (simaurra, mindak...); eta abar.

Kutsadura kimikoa:

tratamendu fitosanitarioen edo laborantza-faseko desbideratzeen ondorioz sortzen da.

Kutsadura fisikoa:

bilketan, garraioan edo ustategiko ontziratzean partikula edo material arrotzak erortzean sortu ohi da.



URA

Behar besteko kalitatea ez duen **ura erabiliz** gero, kutsadura sor daiteke zuzenean, eta eremuan, instalazioetan edo garraioan lokalizaturiko kutsadura zabaldu.



- **1310/1990 Errege Dekretua**, urriaren 29koa, Nekazaritza-sektorean arazketako lohia nola erabili arautzen duena.
- **261/1996 Errege Dekretua**, otsailaren 16koa, Urak nekazaritza-iturrietatik datozen nitratoek sortutako kutsaduraren aurka babesteari buruzkoa.
- **1/2001 Errege Dekretua**, uztailaren 20koa, Uren Legearen testu bategina onartzen duena.
- **1620/2007 Errege Dekretua**, abenduaren 7koa, Ur araztuak berrerabiltzeko araubide juridikoa ezartzen duena.
- **AAA/1072/2013**, ekainaren 7koa, Nekazaritza-sektorean arazketako lohiak erabiltzeari buruzkoa.



URA

ok

Ureztatzeko ura

produktua kutsatzeko faktore garrantzitsua izan daiteke. Hori dela eta, kontu handia izan behar da uraren kalitatearekin eta ureztatzeko erabiliko den metodoarekin, uzta biltzeaz dagoenean batik bat.

Urak ez du eduki behar ez gizakien eta/edo animalien kontaminazio fekalik, ez substantzia arriskutsurik (adibidez: *Escherichia coli*, koliformeak, parasitoak, *Shigella spp*, *Listeria monocytogenes*, metal astunak, artsenikoa, zianuroa, etab.), ez hondakin agrokimikorik.

- > Nekazaritzarako erabiltzen den **ura nondik datorren egiaztatu**: ureztatzeko ura (putzuak, urtegiak, errekek, ibaiak, etab.), ongarriak aplikatzeko ura, laborantza hidroponikorako erabiltzen den ura...
- > Uraren **analisiak egin** kutsatzaile mikrobianoak eta kimikoak aurkitzeko, ez bada jakinekoa urak zer-nolako kalitatea duen edo ura eskasa dela ikusten bada.
- > **Edateko ura erabili** fruta eta barazkiak bildu ondoren garbitzeko.
- > Ur araztuak erabiltzen badira, arroko organismoaren **administrazio-baimena eduki**.
- > Arazketako lohiak erabiltzen badira, **lohiak** aplikatu aurretiko eta ondorengo **analisien emaitzak eduki**.

ok

FITOSANITARIOAK

FITOSANITARIOAK

Izurri-eraso batek kalte egiten badio labore bati, baliteke izurriak kontrolatzeko metodo bereziak erabili behar izatea, produktu fitosanitarioak barne.

PRODUKTUOK EGOKI ERABILTZEA, MANIPULATZEA ETA GORDETZEA FUNTSEZKOA DA



- **280/1994 Errege Dekretua**, otsailaren 18koa, Plagizida-hondakinen gehieneko mugak eta landare-jatorriko produktu jakin batzuen gaineko kontrola ezartzen dituen.
- **1416/2001 Errege Dekretua**, abenduaren 14koa, Produktu fitosanitarioen ontziei buruzkoa.
- **43/2002 Legea**, azaroaren 20koa, Landare-osasunari buruzkoa.
- **APA/326/2007 Agindua**, otsailaren 9koa, Nekazaritza- eta baso-ustategien titularrek produktu fitosanitarioen erabilerari buruzko informazioa erregistratzeko dituzten betebeharrak ezartzen dituen.
- **1013/2009 Errege Dekretua**, ekainaren 19koa, Nekazaritzako makineria karakterizatu eta erregistratzeari buruzkoa.
- **1702/2011 Errege Dekretua**, azaroaren 18koa, Produktu fitosanitarioak aplikatzeko ekipoetan aldi behin egin beharreko ikuskapenei buruzkoa.
- **1311/2012 Errege Dekretua**, irailaren 14koa, Produktu fitosanitarioak modu iraunkorrean erabili ahal izateko jarduketa-esparrua ezartzen duena.



FITOSANITARIOAK

ok

PRODUKTU FITOSANITARIOAK ERABILTZEAN:

- › **Landa-koaderno** bat izan eta eguneratuta eduki.

- › Produktu fitosanitarioen **aplikatzailearen txartela** eduki (dagokion kategoriakoa).



- › Fitosanitarioak aplikatzen dituzten langileak **ROPOko** ([Defentsa Fitosanitarioko Baliabideen Ekoizleen eta Operadoreen Erregistro Ofizial](#)) inskribatu.

- › Tratamenduak tratamendu-enpresa batek egiten baditu, enpresaren **lan-kontratua** (43/2002 Legea, 6. artikulua) eta ROPoko inskripzioa eduki.

- › Izurrien kudeaketa integratuari buruzko **aholkuen dokumentazioa** eduki, baldin eta ustiaketa ez badago aholkularitzatik eta aholkulariaren ROPon izena ematetik salbuetsita.

PRODUKTU FITOSANITARIOEN BILTEGIAN:

- › Produktu fitosanitarioak gordetzeko leku bat eduki:
 - › Edozein bizitegitatik eta landare-gaitik **fisikoki bereizia**.
 - › Etengabe aire fresko nahikoarekin **girotua**, lurrunik pila ez daitezen.
 - › **Temperatura**-baldintzei eutsiko diena.
 - › Azaleko uren masetatik, putzuetatik edo urez bete daitezkeen eremuetatik **urrundua**.
 - › **Isuriak geldiarazteko egokitua** eta material geldo xurgatzaileak izango dituen, baita eskuilak, palak eta zorroak ere, ustekabeko isuriak gertatzen direnerako.
 - › Ontzi kaltetuak, hutsak, produktu-hondakinak eta halakoak isolatzeko plastikozko zorro bat duen **edukiontzi** bat izango duena.
 - › Produktu fitosanitarioekin lotutako istripuetarako **segurtasun-aholkuak** izango dituen (erraz ikusteko moduan egon behar dute eta lehen sorospenetako oinarritzko neurriak azaldu behar dituzte).

ok

FITOSANITARIOAK

ok

PRODUKTU FITOSANITARIOEN BILTEGIAN:

- > Fitosanitarioak **armairu haizeztatuetan** eta **sarrailadunetan gorde**, biltegiko gainerako tresnetatik bereizita. Ustiatetik kanpoko pertsonen, beharrezko prestakuntzarik ez dutenei eta aplikatzaile-txartelak ez dutenei produktu fitosanitarioen eremura sartzea galarazi behar zaie.
- > Fitosanitarioak **bertikalean gorde**, itxigailua goraka dutela eta jatorrizko etiketa osorik eta irakurtzeko moduan dagoela (irekita badaude, ontzi berean gorde, jatorrizko etiketa irakurtzeko moduan dagoela).



PRODUKTU FITOSANITARIOAK MANIPULATZEAN:

- > Produktu fitosanitario baimenduak erabili ustiatetik laborerentzako, eta etiketan datozen erabilera-baldintzak bete.
- > Ezarritako baldintzei jarraituz prestatu nahasteak eta behar bezala dosifikatu, gehieneko dosi baimenduak gainditu gabe, ekoizpen desberdinetarako ezarrita dauden Hondakinen Gehieneko Mugak (HGM) gaindi ez daitezen.
- > Fitosanitarioak modu **seguruan garraiatu** (ontzi itxietan, ontziak gune zorrotzekin hondatzea saihestuz).
- > Norbera babesteko ekipamenduak (**NBE**) eduki: eskularruak, buzoak, botak, maskarak eta begietarako babesgarriak, baldin eta fitosanitarioak manipulatzen, likidoa prestatu eta tratamenduak egin behar badira.
- > Fitosanitarioak putzu batetik gertu aplikatzen badira, **putzua itxita** eduki, ura ez dadin kutsatu tratamendu fitosanitarioen desbideratzeak direla eta.

ok



ok

FITOSANITARIOAK


PRODUKTU FITOSANITARIOAK MANIPULATZEAN:

- > Gutxienez **5 metroko tartea utzi** tratamendu fitosanitarioak azaleko uren masetatik gertu aplikatzen direnean, eta ura ateratzen den lekuetatik 50 metro tratatu gabe utzi. Baliteke produktuen etiketek baldintza zorrotzagoak ezartzea; kasu horietan, etiketako baldintzak bete behar dira.
- > Tratamendurik ez egin segundoko 3 metrotik gorako **haizea** badabil.

FITOSANITARIOAK APLIKATZEKO EKIPOAK:

- > **ROMAko** ([Nekazaritza Makinen Erregistro Ofizial](#)) inskripzioaren ziurtagiria eduki.
- > **ITEAF** baimenduek aplikazio-ekipoen gainean egindako ikuskapenen **ziurtagiria** eduki.
- > Fitosanitarioak aplikatzeko ekipoak **garbi eta egoera onean mantendu**.
- > Aplikatzeko ekipoen biltegiak **ez bete** putzuetatik edo ura biltzeko lekuetatik, ezta ubideetatik ere.
- > Tratamendu-ekipoa ur-puntu eta -masetatik **25 metrora egiaztatu**.

ok



FITOSANITARIOAK

ok

FITOSANITARIOAK APLIKATZEAN SORTUTAKO HONDAKINAK:

- > **Sobera gelditu den likidoa edo tanga garbitzetik sortzen diren hondakinak kudeatzean**, ingurumen-kutsadurarik ez eragin (ez gaitzitu etiketan zehaztutako gutzizko dosia, eta likidoa sobratzen bada, laboreari berriz bota bukatu arte, edo hondakinak kudeatzeko sistema batean jarri).
- > **Ontzi hutsak 3 aldiz pasatu uretan**, eskuz edo aplikazio-ekipoan integraturiko presiopeko urberritze-sistema baten bidez.
- > **Ontzi hutsak ezabatzeko**, bilketa-sistema ofizialak (SIGFITO) eta/edo aurreikusitako entrega-puntuak erabili.

ok





ok

LANGILEAK

LANGILEAK


Pertsonak funtsezkoak dira produktua kutsa ez dadin. Hezkuntzari eta prestakuntzari esker, ekoizpen segurua lortu ahal izango da.



- **852/2004 Araudia**, 2004ko apirilaren 29koa, Elikadura-produktuen higieneari buruzkoa.

- › Nekazaritza-ekoizpen primarioko higiene- eta manipulatzeko **jardunbide egokiak** zein diren **jakin**, ikastaroez, eskuliburuez, liburuxkez eta abarrez baliatuta.
- › Lantokitik **gertu izan** sanitarioak eta eskuak garbitzeko ekipoa, laboreekin kontaktu zuzena egongo bada.

ok



LOTURA DUTEN ZEREGINETAKO HIGIENEA ETA MANIPULAZIOA

LOTURA DUTEN ZEREGINETAKO HIGIENEA ETA MANIPULAZIOA:

laborantza, bilketa,
ekipoak, garraioa,
biltegiatzea eta
ustiatzeko
ontziratzea

Lanak modu eraginkorrean
eta baldintza egokietan
egin behar dira, produktua
hondatu eta kutsatu ez
dadin.



- **852/2004 Araudia**, 2004ko apirilaren 29koa, Elikadura-produktuen higienari buruzkoa.
- **1935/2004 Araudia**, 2004ko urriaren 27koa, Elikagaiekin kontaktuan egongo diren material eta objektuei buruzkoa eta 80/590/CEE eta 89/109/CEE Zuzentarauak indargabetzen dituen.
- **1881/2006 Araudia**, 2006ko abenduaren 19koa, Kutsatzaile jakin batzuen gehieneko edukia zehazten duena.
- **1169/2011 Araudia**, 2011ko urriaren 25ekoa, kontsumitzaileari ematen zaion elikadura-informazioari buruzkoa.
- **9/2015 Errege Dekretua**, urtarrilaren 16koa, Nekazaritza-ekoizpen primarioko higienearen araudi komunitarioa aplikatzeko baldintzak arautzen dituen.
- **126/2015 Errege Dekretua**, otsailaren 27koa, Azken kontsumitzaileari eta kolektiboari saltzeko ontziratutako gabe aurkezten diren elikagaien, saltokietan erosleak eskatuta ontziratutako elikagaien eta txikizkako saltokien titularrek ontziratutako elikagaien informazioari buruzko arau orokorra onartzen duena.



ok

LABORANTZA

- > Nekazaritza-ustiatagia [REGEPAn \(Nekazaritza Ekoizpenaren Erregistro Nagusia\)](#) inskribatu.

BILKETA

- > **Bilketarako ontziak** (fruten eta barazkien kasuan) soil-soilik bildutako produkturako erabili.

EKIPOAK ETA GARRAIOA

- > Laborantzian eta bilketan erabilitako ontziak, lanabesak, ibilgailuak eta ekipoa **garbi eduki**.

BILTEGIRATZEA

- > Bildutako produktuaren biltegiak **garbi eduki** eta produktuak beste material batzuen hondarrak (ontzien, fitosanitarioen eta abarren hondakinak) uki ditzan saihestu.
- > Ustiategitik kanpoko animaliak edo izurriak (intsektuak, karraskariak) **saihestu**, kutsadura-iturri izan daitezke eta.



ok

LOTURA DUTEN ZEREGINETAKO HIGIENEA ETA MANIPULAZIOA

ok

USTIATEGIKO ONTZIRATZEA

- > Elikadura-erabilerarako gaitasun-zigilua duten elikagai-ontziak erabili.



- > **Ezingo da berrerabili** zurezko, kartoizko edo poliestireno hedatuzko ontzirik.
- > **Produktu ontziratutak beste material batzuetatik bereizita** gorde (aplikazio-ekipoetatik, fitosanitarioetatik...).
- > **Egoera onean eta garbi** eduki ontziratzeako ekipoak eta instalazio finkoak.
- > **Behar bezala etiketatzea** ontziratutako produktuak: salmenta-izendapena; jatorria; kalibre-kategoria eta aldaera (merkaturatze-araurik egonez gero), kantitate garbia; operadorearen identifikazioa eta lotea.



ok



OK

TRAZABILITATEA

TRAZABILITATEA

Trazabilitateari esker, elikagaiak ekoizteko kateko prozesu osoa berregin daiteke, sor daitekeen edozein gorabehera kontrolatzeko eta produktua kontsumitzaileengana iritsi edo eraldaketa-katearen hurrengo mailari eragin aurretik konpontzeko.



- **178/2002 Araudia**, 2002ko urtarrilaren 28koa, Elikagaien legeriaren printzipioak eta baldintza orokorrak xedatzen dituena, Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritzak sortzen duena eta elikagaien segurtasunari dagozkion prozedurak ezartzen dituena.

- › **Merkaturatutako uza identifikatu** (produktua nori entregatzen zaion): behar bezala identifikatu behar da zein pertsona edo identitatek jasotzen duen uza, zenbat hornitzen den (kg), noiz entregatzen den eta zein den ekoizpen-partzelaren zenbakia, albaranaren lotea edo zenbakia adieraziz (halakorik baldin badago).
- › Ustiategian **kimuak ekoizteko haziak** landatzen badira, behar bezala erregistratu eta adierazi behar da ekoiztutako eta hornitutako hazi-lote bakoitzari buruzko informazioa (izendapen taxonomikoa, bolumena edo edukia, hornitzailearen izena eta helbidea, bezeroaren izena eta helbidea, lotea identifikatzeko erreferentzia, bidalketa-eguna, etab.).

OK



ONGARRIAK ETA MEDEAGARRIAK

ONGARRIAK ETA MEDEAGARRIAK

Nekazariak jardunbide egokiak bete behar dituzte ongarri nitrogenatu kimikoak, organikoak (simaurra, mindak, lohiak, oilo-simaurra) eta medeagarriak (konposta, zohikatza...) erabiltzean, kutsadura mikrobiologiko eta kimikoaren arriskua murrizteko.



- **390/1998 Errege Dekretua**, abenduaren 22koa, Nekazaritza-jardueratik eratorritako nitratoek kutsa ditzaketen eremuak adierazteko arauak ematen dituen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Jardunbide Onen Kodea onartzen duena.
- **2008ko urriaren 15eko Agindua**, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuarena eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena, Nekazaritza-jardueratik eratorritako nitratoek urak kutsa ditzaketen eremuetan jarduteko plana onartzen duena.
- **506/2013 Errege Dekretua**, ekainaren 28koa, Ongarriei buruzkoa.




OK

ONGARRIAK ETA MEDEAGARRIAK

- > Ongarri organikoak (ongarri organo-mineralak eta medeagarri organikoak) [Ongarrien Erregistroan](#) inskribatuta daudela egiaztatu.
- > Simaurrak eta mindak aplikatzeko **gutxieneko distantziak errespetatu** (515/2009 Dekretua).
- > [Nitratoek kalte egin diezaieketen eremuetan](#), ongarritze-plana eduki eta ongarritzearen eta medeapenen erregistroa izan.

OK





DOKUMENTAZIOA ETA ERREGISTROAK

HONAKO AGIRI HAUEK EDUKI ETA GORDE:

- > Ustiapen-koadernoak.*
- > [Aholkularitzaren dokumentazioa](#).*
- > [REGEPA](#)ko inskripzioa .
- > [ROPO](#)ko ([Defentsa Fitosanitarioko Baliabideen Ekoizleen eta Operadoreen Erregistro Ofizial](#)) inskripzioa.
- > Lan-kontratua* eta [ROPO](#)ko inskripzioa, tratamenduak tratamendu-enpresak egiten baditu.
- > Produktu fitosanitarioen aplikatzailearen txartela.
- > [ROMA](#)ko ([Nekazaritza Makinen Erregistro Ofizial](#)) inskripzioaren ziurtagiria.
- > [ITEAF](#) baimenduek aplikazio-ekipoen gainean egindako ikuskapenen ziurtagiria.*

ok

- > Enpresa kudeatzaile baimendu bati ontzi hutsak eman izanaren egiaztagiria.*
- > Produktu fitosanitarioen erosketa-fakturak.*
- > Uzta entregatu izanaren albaranak edo saldu izanaren fakturak.*
- > Higiene-jardunbide egokiei buruzko informazioa eta/edo prestakuntza.
- > Ur araztuak erabiltzen badira, arroko organismoaren [administrazio-baimena](#).
- > Arazketako lohiak erabiltzen badira, lohiak aplikatu aurretiko eta ondorengo analisien emaitzak.
- > [Nitratuak kalte egin diezaieketen eremuetan](#), ongarritze-plana eta ongarritzearen eta medeapenen erregistroa.

ok

* Agiriok gutxienez hiru urtez gorde behar dira.

ARAU-OINARRIAK

ELIKAGAIEN SEGURTASUNA ETA NEKAZARITZA-EKOIZPEN PRIMARIOA



- **178/2002 Araudia (EE):** elikagaiak ekoizteko, eraldatzeko eta banatzeko etapa guztietan elikagaien eta elikagai-osagaien trazabilitatea bermatzeko xedapenak jasotzen ditu.

Trazabilitate-sistema bat ezartzea ezinbestekoa da produktu jakin batzuk erretiratu ahal izateko edo kontsumitzaileei zein kontrol-ikuskatzaileei informazioa emateko, elikagaien segurtasunarekin lotutako arazoek premiagabeko asaldura handiagorik eragin ez dezaten.

- **852/2005 Araudia (EE):** I. eranskinean, ekoizpen primarioari eta horrekin lotutako eragiketei aplika dakizkiekeen higiene-arau orokorrak azaltzen ditu.

Plangintza integratu bat behar da elikagaiak **ekoizpen primarioko lekutik** merkatuan **jartzen** edo esportatzen diren arte seguru egongo direla bermatzeko. Operadore guzti-guztiek, elikakate osoan, elikagaien segurtasuna arriskuan jarriko ez dela ziurtatu behar dute.

- **1311/2012 Errege Dekretua:** produktu fitosanitarioak modu iraunkorrean erabiltzea lortzeko jarduketa-esparrua ezartzen du.

Nekazaritza-ekoizpenaren kateko **operadoreek ardura** handiak dituzte, **produktu fitosanitarioekin** eta **garapen iraunkorraren** aldeko lanarekin zuzenean lotuak.

- **9/2015 Errege Dekretua:** nekazaritzako ekoizpen primarioaren higieneari buruzko araudi komunitarioa aplikatzeko baldintzak ezartzen ditu.

Nekazaritza Ekoizpenaren Erregistro Nagusia (REGEPA) behar-beharrezkoa da elikagaien segurtasunari buruzko **araudi komunitarioa betetzeko**. Gainera, ikuskaritza-zerbitzuentzat ere ezinbestekoa da, nekazaritzako ekoizpen primarioari lotutako higienearen kontrol ofizialen programak araupetzen laguntzen dielako.

INFORMAZIO GEHIAGO LORTZEKO EDO KONTSULTAK EGITEKO



Arabako Foru Aldundia

Laguntza zuzenen Zerbitzua. Nekazaritza Zuzendaritza
Tfno.: 945 18 18 18

Bizkaiko Foru Aldundia

Landare Ekoizpenaren Atala eta Nekazaritza Hobetzeko eta
Landareak Babesteko Atala. Nekazaritza Zuzendaritza
Tfnos.: 944 06 68 70 / 944 06 68 69

Gipuzkoako Foru Aldundia

Landare Alorreko Unitatea
Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza
Tfno.: 943 11 20 65

Eusko Jaurlaritza

Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza
Tfno.: 945 01 96 49

ELIKA

Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa
Tfno.: 945 12 21 73

